



ESTIMULAZIO KOGNITIBOKO INTERBENTZIOAK NARRIADURA KOGNITIBOA SAIHESTEN

Gradu amaierako lana. Literaturaren berrikusketa kritikoa.

EGILEA: Nerea Linder Gabilondo
DATA: 2020ko Apirilaren 20a
ZUZENDARIA: Leyre Aldeano Merchan
HITZ KOPURUA: 5.659 hitz



Osakidetza
Servicio vasco de salud

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

SARRERA	2
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
HELBURU NAGUSIA:	7
METODOLOGIA:	8
BILAKETA PROZESUA:	8
• BARNERATZE IRIZPIDEAK:.....	8
• KANPORATZE IRIZPIDEAK:	8
ARTIKULUEN AUKERAKETA	10
EMAITZAK ETA EZTABAIDA	11
ZAHARTZAROAREN PROZESU FISIOLÓGIKOAN	11
1. EGOERA KOGNITIBOA	11
2. BIZI KALITATEA	14
3. ARLO PSIKOLOGIKOA.....	15
4. FUNTZIONALITASUNA.....	15
NARRIADURA KOGNITIBO ARINEAN	16
1. EGOERA KOGNITIBOA	16
2. BIZI KALITATEA	19
3. ARLO PSIKOLOGIKOA.....	20
4. FUNTZIONALITASUNA.....	20
ONDORIOAK	21
MUGAPENAK	22
BIBLIOGRAFIA	24
ERANSKINAK	27
1. ERANSKINA. HITZ GAKOEN TAULA	27
2. ERANSKINA. BILAKETA EKUAZIOAK.....	27
3. ERANSKINA. FLUXU- DIAGRAMA.....	34
4. ERANSKINA. IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA.....	35
5. ERANSKINA. ARTIKULUEN LABURPEN TAULA	39
6. ERANSKINA. ZUHAITZ KATEGORIALA	49
7. ERANSKINA. EMAITZETAKO ESKALAK	50

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: mundu mailan gertatzen ari den zahartzaro progresiboak arazoak ematen ditu osasun- eta maila-soziosanitarioan. Zahartzaroari dagokionez, 2050. urterako %22-ko portzentaia (2.000 milioi) izatea espero da eta gaur egun, 65 urtetik gorakoek artean %10-ak asaldura kognitiboak aurkezten ditu. Zahartzaroan egoera kognitiboaren endekapen graduala ematen den bitartean, narriadura kognitibo arinean (NKA) oinarritzeko funtzio kognitiboaren asaldura ematen da. Horregatik, zenbait tratamendu aurrera eramanez gaitasun kognitiboak mantendu eta lantzeko, estimulazio kognitiboko interbentzioak, hala nola. Era honetan, erizainok interbentzio hauen aplikazioaz baliatu gaitzake, bizitzako fase zehatz hauetan gaitasun kognitiboak ahalik eta hoberean mantentzeko eta ondorioz narriadurak ekar ditzakeen galerak saihesteko.

Helburua: zahartzaroaren prozesu fisiologikoan eta narriadura kognitibo arina daukaten pertsonengan estimulazio kognitiboan oinarritzen diren tekniken eraginkortasuna aztertzea da.

Metodologia: helburuari erantzuna emateko literaturaren berrikusketa kritikoa burutu da. Gehien erabilitako hitz gakoak “zahartzaroa”, “narriadura kognitibo arina”, “estimulazio kognitiboa” eta “eraginkortasuna” izan dira ondoko datu base nazional zein internazionalen: Cuiden, PubMed, PsycInfo, Medline eta Cinhal. Ingelesez eta gazteleraz idatzitako artikulak onartu dira. Eskuzko bilaketaren bitartez RNAO, NICE eta Guía Salud erabili izan dira nahiz eta artikulurik ez aurkitu. Azken hamar urteetan argitaratutako artikulak onartu dira. Azkenean, 15 artikulak izan dira esku artean.

Emaitzak eta eztabaida: estimulazio kognitiboko interbentzioak egoera kognitiboan, bizi kalitatean, arlo psikologikoan eta funtzionaltasunean duen eraginkortasuna frogatu da literaturan aurkitutako eskala ezberdinen bitartez. Interbentzioak zahartzaroaren prozesu fisiologikoan egoera kognitiboan eta bizi kalitatean hobekuntza esanguratsuak ekartzen dituen bitartean, NKA-ean egoera kognitiboan, arlo psikologikoan eta funtzionaltasunean hobekuntzak ekartzen dituela frogatu da.

Ondorioak eta mugapenak: artikuluen artean izandako mugapenak eta elkarren artean ezberdinak diren eskalak erabiltzeak, emaitzak interpretatzeko zailtasunak eman dituzte. Horregatik, arlo honetan ikerketa kuantitatibo gehiago egitea komeni da datuak falta direlako emaitzen arteko harremanak aztertzeko.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Mundu mailan gertatzen ari den zahartzaro progresiboak arazoak ematen ditu osasun-eta maila-soziosanitarioan (1). Gaur egun, gizartearen %12ak (200 milioi) 60 urte baino gehiago ditu, eta 2050. urterako %22-ko portzentaia (2.000 milioi) izatea espero da (2). Ikerkuntzek diotenez 65 urtetik gorakoan artean %45ak eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko mugak ditu eta %10ak asaldura kognitiboak aurkezten ditu (3,4).

Espainiari dagokionez, azken urteetan, biztanleriak bizi itxaropenaren handipena bizi izan du: 1950. urtean gizon eta emakumeen artean 36 eta 38 urte izatetik, 2012an 79,4 eta 85,1 izatera igaro da (4). Aldaketa honek eta jaiotze tasak jaisteak populazioaren zahartzea eragin du, horregatik, zahartzaroa Osasun Publikoko arazo bilakatu da (5).

Ikerketek adierazten dute mundu mailan osasuneko gastuaren %23a adin nagusikoen gaixotasunei zuzentzen dela eta horren %7a gaixotasun neurologiko eta mentalei zuzentzen zaie (osasun zerbitzuetan kostu ekonomiko handia suposatuz) (6). Izan ere, kognizioan narriadura izateak banakoaren autonomia eta independentzia murriztea suposatzen du, ondorioz, banakoak zaintza behar handiagoa izatea eragiten duelarik (7).

Zahartzaroa jaiotzetik hasi eta heriotzean amaitzen den prozesu ebolutibo, graduala, naturala eta atzeraezinezkoa da. Prozesu honetan aldaketa biokimiko, fisiologiko, morfologiko, sozial eta funtzionalak ematen dira banakoan, baita egoera kognitiboaren endekapen graduala ere (8). Baina, endekapen honek ez die banako guztiei eragiten, ezta era berean eragiten ere. Hurrengo funtzio kognitiboetan ematen dira aldaketak (9, 10):

- **Memoria:** zahartzearen ondoriozko aldaketa neurokimikoen ondorioz gertaera berriei dagokion memorian eta aldizkako oroimena edo gertaera pertsonal edo publikoei dagokion memoria kaltetzen da batik bat. Aspaldiko memorian, berehalakoan eta memoria semantikoan, aldiz, ez da aldaketarik ematen (11).
- **Harreman bisual-espaziala:** funtzio honekin estimulu bisual jakinak identifikatu, bereiztu eta aukeratu egiten dira, eta estimulu hauek gurekiko duten kokapenaz ohartarazten digute. 65 urtetik aurrera funtzio honen endekapena hasten da, lehenik estimulu sinbolikoen edo hitzezkoen bereizketan kaltetzen hasten delarik. Adibidez, zati bat falta zaion irudiaren identifikazioan eragiten du (12). Gainera, zahartzaroon ikusmen galera eman ohi da zeinak jarduera fisikoak eta eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko oztopatzen dizkien (13).

- **Funtzio exekutiboak:** jarraian adierazitako funtzio kognitiboetan ematen da garuneko narriadura nagusienetariko bat; hauek baitira zahartzaroari lotutako endekapena pairatzen hasten diren lehenak: kontzeptuak sortzeko gaitasuna, arrazoitze logiko eta abstraktua, elastikotasun kognitiboa, arazoaren ebazpena, erabakiak hartzea, eta arreta eta inhibizioaren prozesua dira. Funtzio hauek garrantzitsuak dira emozioen eta jokabideen kontrolan (12).
- **Informazioa prozesatzeko denbora:** zahartzaroan maila sentsorialaren, motorearen eta kognitiboaren moteltzea ematen da, arretaren asaldura eta distraitzen duten estimuluak inhibitzeko zailtasunekin batera. Galera hau neuronen arteko transmisioaren abiadura murriztu delako gerta daiteke (12).
- **Lengoiari** dagokionez hitz egiteko jarioitasunean eta egitura gramatikal konplexuen ulermenean eragiten du batik bat; ez, ordea, inteligentzian (12).

Banako guztiei berdin ez eragitearen arazoien artean honako faktore hauek daude: faktore **biologikoak** (birika gaitasunak, hipertentsioa, diabetea), **bizi estilokoak** (ariketa fisikoak, alkohol edo tabako ohiturak, parte hartze sozialak), **psikologikoak** (depresioa), **inguruneak** (toxikoekiko esposizioa) edo **soziodemografikoak** (maila sozioekonomikoa, hezkuntza maila, lanbidea). Banakoen egoera kognitiboan eragiten duten eta banakoak elkarrengandik ezberdinak izatea eragiten dute (14).

Aurrez esan bezala, zahartzaroan asaldura kognitiboaren prebalentzia ikusita esan daiteke adin nagusikoek beraien egoera kognitiboan eragin dezakeen gaixotasun bat izateko arriskua dutela. Zentzu honetan, narriadura kognitibo arina (NKA) oinarrizko funtzio kognitiboaren asaldura moduan adierazten da. Ikerketa batzuek diotenez 65 urtetik gorakoan artean prebalentzia %3-19 bitartekoa da (15). Autore batzuek egoera hau dementzia eta zahartzaro prozesuaren bitartean kokatzen dute; izan ere, ikerketa batzuetan banakoen %30-40a normaltasun kognitibora itzuli direla ikusi da, %14a demenziara garatzen den bitartean (EK-ko programarik jaso gabe). Zentzu horretan, gaixotasun neurodegeneratiboaren fase aurre-klinikotzat jotzen da hain zuzen ere, non oraindik ere pertsonaren funtzionaltasunean eragin esanguratsurik ez dagoen. Espazioaren orientazioa, lengoia, arreta, informazioa prozesatzeko abiadura, antzemate bisuala eta memoria asaldatuta agertu ohi dira; eta sarritan, jokabide aldaketak ere gerta daitezke (3, 6, 16).

Literaturaren berrikusketaren ostean narriadura kognitiboa 60 urtetik aurrera hasten dela esan daiteke, nahiz eta narriadura kognitiboaren neurketen batez bestekoak 75 urtetik aurrera gertatzen dela dioten autore askok (14). Zenbait irizpide daude NKA definitzeko,

horregatik esan ohi da ez dela talde homoginoa, ezta argi definitutakoa ere (16). Adituek, Petersen-ek zehaztutako kriterio hauek ezartzen dituzte NKA definitzeko (4):

- a) Banakoak bere memoria kaltetzen hasi dela kexatzea, informatzaile batek baieztatua bada hobe (4).
- b) Ebaluazio neuropsikologiko baten bitartez memoriaren narriadura objektiboa izatea (banakoan adinari dagokion ebaluazio neuropsikologikoaren neurketan batez bestekoa baino 1,5 puntu gutxiago izatea desbideratze estandarrean) (4).
- c) Funtzio kognitibo orokorra normala izatea (4).
- d) Eguneroko bizitzako jardueran eraginik ez izatea, nahiz eta aurreratuan eragina agertu daitekeen (4).
- e) Dementziaren diagnostikorik ez izatea (4). Izan ere, dementzia, funtzio kognitibo guztien narriadura sakonagoan oinarritzen den sindromea da, normalean progresibo eta kronikoa dena. Memoria, pentsamendua, orientazioa, ulermena, kalkulua, ikasteko gaitasuna, eta lengoiaia asaldatzeaz gain, judizioa, kontrol emozionala, jarrera soziala eta motibazioa ere, kaltetu ohi da. Pertsonaren funtzionaltasunean eta ingurunean inpaktu sakonagoa gertatzen delarik (17).

Horregatik, zenbait tratamendu aurrera eraman dira gaitasun kognitiboak mantendu eta lantzeko. Tratamendu ez farmakologikoen artean, estimulazio kognitiboa aurkitzen da, gaitasun kognitiboak estimulatzeko dituen estrategia eta metodo ezberdinen multzoa dena. Estimulazio kognitiboko (EK) interbentzioa zertan datzan azaldu aurretik garuneko ezaugarri funtsezkoak azalduko dira. Izan ere, garuna bere egitura eta funtzionaltasuna eraldatzeko gai da (12).

Alde batetik erreserba kognitiboa dago: neuropatologia edo lesio bat konpentsatzeko garunak duen gaitasunari deritzo. Literaturak dionez, jarduera kognitibo handiak erreserba kognitiboa estimulatu dezake eta berehalako narriadura kognitibo baten aurrean efektu indargetzailea duela diote. Era berean, NKA garatzeko arriskua murriztu dezake ere (18). Bizitzan zehar jarduera sozial edo fisikoak izan dituztenek garun erreserba handiagoa dutela ikusi da. Bestalde, neuroplastikotasuna dago, garunak egoera berrira egokitzeko eta asaldatutako oreka birjartzeko ematen duen erantzuna da (lesio bategatik, ingurumen aldaketengatik...). Hau da, nerbio sistemak bizitzan zehar ingurune aldaketei erantzuteko, bere egitura eta funtzionamendua aldatzeko duen gaitasuna da. Zahartzaroan plastikotasuna murrizten den arren, ikaskuntza, ariketa fisikoa edota entrenamendu mentalaren bitartez garatu daiteke. Amaitzeko, neurogenesiaren

kontzeptua dago, zeinetan neurona berrien sorkuntza eta garapena ematen den jaiotzaren ostean (12).

EK-ko jardueren bitartez banakoak mantentzen dituen gaitasun kognitiboak landu eta indartzen dira (12). Gaur egun, hainbat motatako estimulazio kognitiboak erabili daitezke; baina, funtsean guztiak pertzepzioa, arreta, arrazoitzea, abstrakzioa, memoria, lengoaia, orientazio prozesuak eta praxiak lantzen dituzte egoera eta jardura konkretuen bitartez. Horrez gain, afektibitatea, jokabideak, aspektu sozialak, familiarrak eta biologikoak ere barne hartzen ditu, banakoarekin modu integralean aritzeko (3, 12). Indibidualki nahiz taldean landu daitezke ariketak, horrela taldean kontaktu soziala bultzatuz (7).

Literaturaren arabera, hauek dira EK-aren helburuak: gaitasun mentalak estimulatu eta mantendu; ingurumenarekin deskonexioa saihestu eta harreman sozialak indartu; segurtasuna sustatu eta banakoaren autonomia bultzatu; nortasuna eta autoestimua bultzatu; estresa saihestu; errendimendu kognitiboa hobetu; errendimendu funtzionala hobetu; eguneroko bizitzako jardueretan independentzia bultzatu; osasun egoera hobetu; pazientearen eta familiarren edota zaindarien bizi kalitatea hobetu; arrazoiketa eta jardura motorea bultzatuko duten inguruko estimuluak ezartzea (3, 12).

Tratamendu honen abantailen artean bigarren mailako efektuen eta interakzio farmakologikoen gabezia dago. Bai profesionalekin, baita gainontzeko partaideekin gertuko harremana errazten du, banakoen jokabidean positiboki eragiten duelarik. Horrela, osasun zerbitzuen erabilera murrizten da, zaintzaileen gainkarga gutxitu eta bizi kalitatea hobetu. Beraz, teknika hau erabilera anitzeko tresna baliagarria da eta kostu efektiboa da, tratamendu farmakologikoa baino ekonomikoagoa baita. (12, 19).

Erizaintzako profesionalok pertsona hauekin dugun harreman estua dela eta, bai lehen mailako arretan bai arlo soziosanitarioan, beraien egoera kognitiboaren berri izan ohi dugu eta teknika hauen aplikazioaz baliatu gaitezke, bizitzako fase zehatz honetan gaitasun kognitiboak ahalik eta hoberen mantentzeko eta ondorioz narriadurak ekar ditzakeen galerak saihesteko. Era honetan, erizaintzako profesionalon gain dago sostengu sareak bilatu edo eratzea narriadura kognitibo arina duen banakoaren osasuna arriskuan jar dezaketen mehatxuak murrizteko (depresioa edota istripuak izan daitezke mehatxuok) (8). Egoera honen larritasuna ikusita zahartzaroaren prozesu fisiologikoan eta narriadura kognitibo arinean prebentzioa lantzea da helburu (4).

HELBURU NAGUSIA:

Zahartzaroaren prozesu fisiologikoan eta Narriadura Kognitibo Arina (NKA) daukaten pertsonengan, Estimulazio Kognitiboan (EK) oinarrizten diren Tekniken eraginkortasuna aztertzea.

METODOLOGIA:

Literaturaren berrikusketa kritikoaren bitartez helburuari erantzuna emango zaio.

BILAKETA PROZESUA:

Bilaketa prozesuari ekiteko honako irizpideak zehazten dira:

- **BARNERATZE IRIZPIDEAK:**
 - **Hizkuntza:** ingelesez eta gaztelera argitaratutako artikulak onartuko dira ikerlariak ulertzen dituen hizkuntzak direlako.
 - **Populazioa:** honako baldintza hauek bete behar dituzte artikuluek (lehenengo bi irizpideei dagokionez bat edo beste aukeratu daiteke):
 - 60 urtetik gora dutenen artean zahartzaroaren prozesu fisiologikoan aurkitzen direnak.
 - 60 urtetik gora dutenen artean narriadura kognitibo arina pairatzen dutenak.
 - Komunitatean bizi direnak.
 - Estimulazio kognitiboan oinarritzen diren teknika edo programa ezberdinen eraginkortasuna aztertzen duten artikulak; zehazki, kognizioari, bizi kalitateari, arlo psikologikoari eta funtzionaltasunari buruz hitz egiten dutenak.
 - **Literatura mota:** ikerketa kuantitatiboak onartuko dira deskriptiboak izan ezik. Hau da, ikerketa esperimentalak eta analitikoak onartuko dira, gida praktikoak, bai eta berrikusketa sistematikoak eta metaanalisiak ere. Eskuzko bilaketaren bitartez aldizkarietako artikulak ere onartuko dira.
 - **Urteak:** azken 10 urteetan argitaratutako artikulak onartuko dira, emaitzak ahalik eta eguneratuen izateko.
 - **Geografia:** ez da muga zehatzik jarriko lurralde ezberdinei dagokionez, baina emaitzak aztertzean kontutan hartuko da non burutu den ikerketa. Izan ere, kultura ezberdinetan pertzepzio desberdina izan ahal dute zahartzaroari, narriadura kognitiboari edo honen inguruko gaiiei dagokionez (ez da berdina izango Ameriketara, Afrikan edota Asiako kulturetan).
- **KANPORATZE IRIZPIDEAK:**
 - **Hizkuntza:** ingelesa eta gaztelera ez diren bestelakoak.

- **Urteak:** 2010 baino lehen argitaratutako artikulua, ez baitaude eguneratuak.
- **Populazioa:**
 - Dementia, narriadura kognitibo moderatua edo aurreratua, edo beste patologia neurologiko edo psikiatrikorik duen pazienteei buruz hitz egiten duten artikulua ez dira onartuko.
 - Instituzioetan bizi diren pazienteak ere ez dira onartuko bilaketan; izan ere, fokua komunitatean bizi diren populazioa aztertzean datza, parte hartze soziala dituztenekin, eta, ez, ordea, zaharren egoitzetan bizi direnekin edota eguneko zentroetara joaten diren banakoekin aztertzea.
 - Estimulazio kognitiboak duen eraginkortasuna kognizioan, bizi kalitatean, arlo psikologikoan eta funtzionaltasunean hitz egiten ez dutenak baztertuko dira.
- **Artikulu mota:** Ikerketa kualitatiboak, ikerketa deskriptiboak, gradu amaierako lanak eta tesiak ez dira onartuko. Ez direlako aproposak helburuari era egokian erantzuteko.

Hurrengo urratsa lan honen helburuari erantzuna emateko, datu baseetan bilaketa egiteko ekuazioa zehaztea da. Lehenik eta behin bilaketa terminoak identifikatu dira: “zahartzaroa”, “narriadura kognitibo arina”, “estimulazio kognitiboa” eta “eraginkortasuna” izanik. Era berean, termino hauen sinonimoak bilatu dira lengoia naturalean ingelesez eta gazteleraz; jarraian, hitz hauek lengoia kontrolatura itzuliz deskriptoreen edo hitz gakoaren bitartez, erabiliko diren datu baseen arabera (1. ERANSKINA).

Bilaketak egin dira ondoko datu base nazional zein internazionalen: Cuiden, PubMed, PsycInfo, Medline eta Cinhal, hurrengo Deskriptore nagusiak erabiliz: “aging”, “mild cognitive impairment”, “cognitive stimulation” eta “effectiveness”. Ekuazio ezberdinak eratu dira, deskriptoreak konjugatuz. Bestalde, azken 10 urteetan argitaratutako artikulua adierazteko filtroa ezarri da; hots, literatura asko agertuz gero azken 5 urteetara murriztuz. Beste filtro batzuk ezarri dira emaitza kopurua murrizteko asmoz, hala nola hitz gakoak title/abstract-ean agertzea, alegia (2. ERANSKINA).

Eskuzko bilaketari dagokionez RNAO, NICE eta Guía Salud arakatu dira, baina ez dira lan honen helburuari erantzuten dion gida klinikorik aurkitu.

ARTIKULUEN AUKERAKETA

Bilaketa guztiak egin ondoren, 409 artikulua aurkitu dira datu baseetan. Hauetatik, izenburuak eta laburpenak irakurrita 354 artikulua albo batera utzi dira ez zutelako helburuari erantzuten edo barneratze eta kanporatze irizpideak ez zituztelako betetzen. Beraz, 55 title/abstract aukeratu dira eta hauen artean: full-testean 6 artikulua ez dira aurkitu, 17 artikulua errepikatu egiten dira eta artikulua bat kanporatu da full-testean Portugesez soilik baitagoelako.

Datu baseetatik lortutako 31 artikuluen testu osoak irakurri ondoren, 17 artikulua kanporatu dira, ez baitute barneratze edo kanporatze irizpideak betetzen edota helburuari erantzuten.

Honez gain, RNAO, NICE eta Guía Salud-eko gida klinikoetan aurrera eramandako eskuzko bilaketaren bitartez 54 artikulua aurkitu dira. Hauetatik batek ere ez dio ez helburuari erantzuten, ezta barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen.

Guzti honen ostean, 14 artikulua onartu dira azkenik irakurketa kritikoa egiteko eta hauen bibliografiatik beste artikulua bat gehitu da baliagarria delako lan honen emaitzak jorratzeko. Hautaketa prozesu hau guztia fluxu-diagramaren bitartez adierazten da (3. ERANSKINA).

Azkenean onartutako 15 artikulua hauetatik, kuantitatiboei dagokienez, 11 artikuluri ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoko gidoia ezarri zaie, guztiak onartuz (4. ERANSKINA).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan honen helburuari erantzuteko 15 artikulua onartu dira, horietatik 6 esperimental garbiak, 4 ikerketa sasiesperimentalak, ikerketa bat aurrera begirakoa, 3 errebisio sistematiko eta metaanalisi bat izanik. Artikulu guztiak behin baino gehiagotan irakurri dira, informazio esanguratsua aztertuz, beraien arteko puntu amankomunak identifikatuz eta informazio guztia sailkatuz eta kategorizatuz (5. ERANSKINA).

Informazioa egoki antolatzeke bi atal nagusitan bereiztea erabaki da. Alde batetik, zahartzaroaren prozesu fisiologikoa duten banakoak eta bestetik, narriadura kognitibo arina dutenak bereiztu dira; egoera kognitiboa, bizi kalitatea, arlo psikologikoa eta funtzionaltasuna azpiataletan banatuz.

ZAHARTZAROAREN PROZESU FISIOLGIKOAN

1. EGOERA KOGNITIBOA

Mota anitzeko estimulazio kognitiboko programek egoera kognitiboan duten eraginkortasuna aztertzeke Mini Examen Cognoscitivo (MEC), Korean-Montreal Cognitive Assesment (K-MOCA), Chinese Dementia Rating Scale (CDRS), Mini Mental State Examination (MMSE), Word Recall Test (WRT) eta Trail Making-test A eta B eskalak erabili izan ziren. Oro har, eskala hauek banakoen egoera kognitiboa aztertzeke erabiltzen diren testak dira, baina, 1. Taulan bakoitzaren azalpena zehatzago ematen da.

Hasteko, Calatayud E, et. al-en ikerketan MEC-arekin interbentzio ostean epe desberdinetan neurtutako datuekin honakoa ikusi zen: interbentzio ostean berehala neurtutako datuetan epe motzeko memoria, lengoia eta praxian hobekuntzak eman ziren. 6 hilabetetara denbora orientazioan hobekuntza eman zen eta, urtebetara, denbora orientazioan, lengoian eta praxian hobekuntzak eman ziren. Beraz, interbentzioak egoera kognitiboan eraginkortasuna du interbentzio ostean, 6 hilabetetara eta urtebetara Espainian komunitatean bizi direnen banako hauen artean (10) (1. TAULA).

Funtzio exekutiboei dagokienez, Kanadako biztanleen artean Tardif S, Simard M.-ren errebisio sistematikoan 6 ikerketetatik 5ek planifikazioan, arazoiketan, hitz jarioan, eta arazoan ebazpenean hobekuntzak izan zituzten adierazi zuten (ez zuten zehaztu neurtzeke erabilitako eskala mota) (20).

Era berean, Park J, et al.-ek Hego Korean burututako ikerketan, K-MOCA testean estimulazio kognitiboko interbentzioak gaitasun bisual-espazial eta exekutibotan, izenketan, lengoaiaren eta memorian hobekuntzak eragin zituen. Ez zen horrela gertatu arretan, gaitasun abstraktuan eta orientazioan. Arreta neurtzen duen K-MOCA atalean ikertzaileek emaitza esanguratsurik ez zuten aurkitu ($p=0,586$). Horregatik, adierazi zuten hezkuntza maila baxua izatea oztipoa izan zela. Izan ere, MOCA atal honetan kalkulu matematikoa egin behar da eta hezkuntza maila baxua dutenek, beharbada, ez dute gaitasunik kalkulu hori burutzeko. Egia da, ikerketan ez zela ikertzailea ezkutatzeko estrategiarik eraman aurrera, emaitzen fidagarritasuna zalantzan jarriz (21) (1. TAULA).

Horrez gain, Kwok T, et al.-ek Txinan aurrera eramandako ikerketan frogatu zuten interbentzioak CDRS eskalan arretan, inimizazioa/pertseberantzia, eraiketan, kontzeptualizazioan eta memorian hobekuntzak eman zituela. Hauen artean, kontzeptualizazioan aldaketa nabarmena emanik. Programaren ondorioz hezkuntza maila baxua zutenek alfabetoek baino garapen hobea lortu zutela aurkitu zuten; CDRS eskalan lortutako puntuazio orokorrean, baita arreta eta kontzeptualizazioa ataletan analfabetoek emaitza hobeak adierazi baitzituzten alfabetoekin alderatuz ($p=0,001$) (22).

Egoera kognitiboarekin jarraituz, Ferreira R, et al.-ek Brasilen burututako ikerketan eta Matías J, Pérez D.-n Madrilen burututakoan MMSE eskalak erabili zituzten. Bietan interbentzioak egoera kognitiboan hobekuntzak ekartzen dituela frogatu ($p=0,001$ eta $p=0,002$). Ferreira R, et al.-ek WRT testa erabili zuten zeinetan, interbentzioek memoria galera murrizten zuela eta osasuntsu zeuden banakoekin hezkuntza maila baxukoekin baino eraginkorragoa zela frogatu zuten (WRT $p=0,0012$). Marías J, Pérez D.-k Trail Making Test-A eta -B eskalen bitartez ez zuten eraginkortasunik frogatu (23, 24) (1. TAULA).

Hego Korea, Txina eta Brasilgo datu hauek aztertuz ez dago argi zein den hezkuntza mailak interbentzioan duen eragina. Izan ere, Hego Korean eta Brasilen hezkuntza maila oztipoa zela dioten bitartean, Txinan analfabetoek hobekuntza gehiago izan zutela adierazi dute. Beraz, esan daiteke hezkuntza maila baxua egoera kognitiboan eragiten duen faktorea dela zahartzaroan.

Amaitzeko, La Rue A.-k Estatu Batuetan burututako errebisio sistematikoko hiru ikerketa bat etorri ziren honakoarekin: urteetan zehar jarduera konplexuak egiteak

gaitasun kognitiboak mantentzea eragiten duela. Ia egunero liburuak edo aldizkariak irakurtzea, idaztea, hitz gurutzatuak egitea, mahai jokoetan edo kartetan jolastea, talde debateetan parte hartzea eta musika instrumentuak jotzeak prozesatzeko abiaduran, arrazoiketan eta memorian hobekuntzak ematen zituela adierazi zuten, baita dementia garatzeko arriskua %63-64 txikiagoa zutela hurrengo 4-5 urteetan zehar (25)(1. TAULA).

Oro har, ikerketa mota (ausazko ikerketa epidemiologiko 2, errebisio sistematiko bat, 2 sasiesperimental eta aurrera begirako bat) eta eskala ezberdinak erabili diren arren, ia guztiek estimulazio kognitiboko interbentzioak egoera kognitiboan hobekuntzak ekartzen dituela frogatu dute.

1. TAULA. ARTIKULUAK, ESKALAK ETA p BALIOAK

ARTIKULUEN IZENAK	ERABILITAKO ESKALAK	EMAITZA ESANGURATSUAK eta p BALIOAK.
		Artikulu guztien konfiantza tartea %95 da. Beraz p=0,05 eta txikiagoak diren balioak emaitza esanguratsuak dira.
Analysis of the effect of a program of cognitive stimulation in elderly people with normal aging in primary care: Randomized clinical trial (10).	MEC. Mini Examen Cognoscitivo. Egoera kognitibo orokorrari buruzko testa. 30 puntu da puntuazio gorena eta bertan orientazioa; berehalako oroimena; kontzentrazioa eta kalkulua; aurrez grabatutako oroimena eta lengoia eta eraiketa atalak ditu.	Berehala neurtutako datuetan: <ul style="list-style-type: none"> - Epe motzeko memoria p=0,017 - Lengoia p=0,028 - Praxia p=0,00 6 hilabetetara: <ul style="list-style-type: none"> - Denbora orientazioa p= 0,02 Urtebetara: <ul style="list-style-type: none"> - Denbora orientazioa p=0,021 - Lengoia p=0,031 - Praxia p= 0,02
Effects of a Multicomponent Cognitive Stimulation Program on Cognitive Function Improvement Among Elderly Women Effects of a Multicomponent Cognitive Stimulation Program on Cognitive Function Improvement Among Elderly Women (21).	K-MoCA (Korean-Montreal Cognitive Assessment). Egoera kognitibo azterten duen testa da. 30 puntu da lortu ahal den onena, eta 26 puntutik gora egoera kognitibo "normala" dagoela adierazten du. Epe motzeko memoria; gaitasun bisuoespazialak; funtzio exekutiboak; arreta, kontzentrazioa eta laneko memoria; lengoia eta denbora eta lekuaren orientazioari buruzko atalak ditu.	K-MoCA <ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun bisual-espazial eta exekutibotan p=0,012 - Izenketan p=0,039 - Lengoian p=0,009 - Oroimen atzeratuan (memorian) p=0,001
Effectiveness of cognitive training for Chinese elderly in Hong Kong (22).	CDRS-rekin (Chinese version of the Mattis Dementia Rating Scale). Funtzio kognitiboaren maila aztertzen du 5 domeinuetan: arreta, inimizazioa/perseberantzia, eraiketa, kontzeptualizazioa eta memoria. DRS da originala eta bertan 144 da Puntuazio altuena. Bertsio txinatarrean parte hartzaileen adina eta hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Emaitza orokorrean p=0.001 - Arretan p=0,003 - Iniziazioa/ pertseberantzia p=0,013 - Eraiketa p=0,028 - Kontzeptualizazioan p=0,001 - Memorian p=0,015

	mailan aldaketak eman zirenez 144 baino altuagoa izan daiteke puntuazio altuena.	Analfabetoak eta alfabetoak konparatuz CDRS: <ul style="list-style-type: none"> - Eaitza orokorrean p= 0,004 - Arretako emaitzetan p=0,003 - Kontzeptualizazioan p=0,003
Maintenance functional capacity in cognitive stimulation subgroups (23).	MMSE (Mini Mental State Examination,) egoera kognitiboaren berri ematen digun testa da. Honen puntuazio altuena 30 da eta 24 puntu edo gutxiago lortuz gero narriadura kognitiboaren susmoa egon daitekela adierazten du WRTan (Word Recall Test) Test honetan lengoaia, memoria semantikoa eta funtzio exekutiboan ebaluazioa burutzen da. Banakoak minutu batean esan dezakeen animalia kopuru gehiena esatean datza testak. Denbora hau eta gero 12-18 izen ematea espero da. Puntuazioaren arabera narriadura kognitiboaren adierazpen posiblea dagoela esan nahi du.	Talde osasuntsuak hezkuntza baxuko taldeak baino puntuazio hobek izan zuten interbentzio ostean p<0,001. WRTan, talde osasuntsuak hezkuntza baxukoak baino puntuazio hobek lortu zituen batez beste (p=0,0012).
Estudio piloto de un nuevo método de estimulación aritmética empleando el ábaco en ancianos sanos y con trastorno cognitivo (24).	MMSE eta Trail Making Test A (arakatze bisuala eta abiadura psikomotoarearen eskala) eta B (arreta selektiboa) erabili ziren, baita Yesavage depresioaren eskala ere. TMT A-n 25 zirkulu daude 1etik 25era izendatuak eta pazienteak zenbaki hauek ordenean markatu beharko ditu marra baten bitartez. TMT-Bn zenbakiak (1-13) letrekin (A-L) ordenean elkartzen joan behar dira marra baten bitartez. Ez A atalean ezta B-n ezin da arkatza paperatik banatu, eta bietan ahalik eta azkarren egitea espero da.	<ul style="list-style-type: none"> - MMSE p=0,002. - TMT-A p=0,562 - TMT-B p=0,605

1

2. BIZI KALITATEA

Bizi kalitatearen inguruan bi ikerketek egin zuten hitz. Ausazko ikerketa epidemiologiko batek bizi kalitatea neurtzeko eskala bat erabili zuen eta errebisio sistematiakoak, aldiz, neurketa subjektibo bat eraman zuten aurrera.

Kwok T, et al. -en Txinako ikerketan diotenez, The 12-item Short-Form Health Survey (SF12) testarekin neurtutako (adinekoen bizi kalitatea neurtzeko tresna, ongizate psikologikoan eta fisikoan bereizten dena) bizi kalitatearen galdetegian interbentzioak eraginkortasuna zuela frogatu zuten komunitatean bizi ziren txinatarren bizi kalitatean, talde-aktibitate sinplea burutu zutenekin alderatuz (p=0,014). Gainera, programa hau komunitateko bizi lagunen artean burutu daiteke, horrela beraien arteko elkarrekintza

¹ Iturria: Egileak egina

soziala bultzatuz. Interbentzio ez-farmakologikoa izatean, ekonomikoki eraginkorragoa izan daiteke interbentzioa aurrera eramatea (22).

Era berean, La Rue A.-ren EEBC-ko errebisio sistematikoko artikulua batean dioten bezala, interbentzioa jaso zutenek kontrol taldekoek baino joera txikiagoa izan zuten bizi kalitatearen narriadura (25).

3. ARLO PSIKOLOGIKOA

Arlo psikologikoa aztertzeke erabilitako eskaletako bat Yesavage da. Eskalak depresio sintomak aztertzen ditu puntuazioaren arabera. 0-5 puntu bitartean emaitzak normaltasunaren barruan daude, hortik gorako puntuetan depresio susmoa dagoela dio.

Ikerketa sasiesperimental batek eta aurrera begirako batek soilik hitz egiten dute. Ez dago argi arlo honetan duen eragina, izan ere, emaitzak kontraesankorrak dira: batek depresio sintomak murrizten direla dioten bitartean, besteak sintoma horiek ez direla murrizten dio. Esaterako, Ferreira R, et al.-k, ikusi zuten bezala, interbentzioak sozializazioan eta osasun promozioan positiboki eragiten du. Izan ere, depresioaren sintomak murriztea, taldean parte hartzea bultzatzea eta norbere autonomia bultzatzea lortu zuten Brasilgo banakoen artean (23). Bestalde, Matías J, Pérez D.-n Madrilgo ikerketan, Yesavage depresioaren eskalaren bitartez interbentzioak depresioaren sintomak murrizten ez zituela ikusi zuten. Egia da, artikulua honetan ez dela adierazten lagin tamainaren kalkulua, emaitzen fidagarritasuna zalantzan jarriz (24).

4. FUNTZIONALITASUNA

Barthel indizea banakoen funtzionaltasun fisikoa baloratzen duen tresna da. Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko (komunera joateko, mugitzeko, jateko...) banakoak duen independentzia maila baloratzen du bere azpiataletan lortutako puntuazioaren bitartez. Lawton eta Brody indizeak, ostera, banakoak jarduera instrumentalak (mugikorraren erabilera, janaria prestatzea, erosketak egitea...) burutzeko gaitasuna baloratzen du, 0 puntu menpekotasun totala eta 8 independentzia totala izanik.

Calatayud E, et al. funtzionaltasunerako Barthel eta Lawton-Brody eskalak erabili zituzten, emaitza esanguratsurik aurkitu barik taldeen artean $p=0,305$ (10). Bestalde, Ferreira R, et al.-ek ikerketan parte hartzaileek Lawton eta Brody testean interbentzioak hobekuntzarik ematen ez zuela ikusi zuten (23).

Funtzionaltasunean ere, aurreko bi kasuetan bezala, bi artikuluk egin dute hitz, eta ez dute frogatu estimulazio kognitiboko interbentzioak banako hauen funtzionaltasunean duen eragina.

NARRIADURA KOGNITIBO ARINEAN

1. EGOERA KOGNITIBOA

Banako hauen egoera kognitiboa aztertzeko MEC, MOCA, MMSE, TMT-A eta -B, memoriaren galdetegi multifaktoriala (MMQ), Hopkins Verbal Learning Test Revised (HVLTR), Short Cognitive Testean (SKT) eta Clinical Dementia Rating-Sum of Box (CDR-SOB) testak izan ziren erabilitakoak.

MOCA testa aurrera eramandako 3 ikerketetan emaitza berdintsuak aurkitu zituzten bitartean (ausazko ikerketa epidemiologiko 1, sasiesperimental 1 eta metaanalisi 1), batean ez zen horrelakorik frogatu (sasiesperimental). Bat egiten duten artikuluek fidagarritasun handiagoa dute aurkakoa adierazten duenak baino.

Lehenik, González C, et al.-en Madrilgo ikerketan estimulazio kognitiboko interbentzio ostean MOCA-n emaitza orokorrean ($p=0,00$) eta aurrez grabatutako oroimena, arreta, funtzio exekutibo eta bisuoespaziala, lengoia eta izendapenaren area kognitiboetan eman ziren hobekuntzak. Baina, artikuluek ez du azaltzen ea ikertzailea edo ikertuak ezkutatzeko estrategiarik erabili izan duten, emaitzen balioa zalantzan jartzea eragiten duelarik (4) (2. TAULA).

Aurreko emaitzekin bat eginez, Han E, et al.-en Hego Koreako artikuluek dio interbentzio osteko emaitzetan Korean Montreal Cognitive Assessment (K-MOCA) puntuazioetan hobekuntzak izan zituztela. K-MOCA testa, MOCA testaren Koreako bertsioa da, funtsean eduki berak aztertzen dituen. Test honetan, zehazki, funtzio exekutibo eta bisuoespazialean, esaldien eraketan, memoria atzeratuan eta orientazioan eman ziren aldaketak (26) (2. TAULA).

Hirugarren postuan, Xu Y, et al.-en metaanalisian estimulazio kognitiboko interbentzioak txinatarren gaitasun kognitibo globalean duen eraginkortasuna frogatu zuten MOCA-n neurtutako emaitzen bitartez ($p<0,0002$) (27).

Alves J, et al.-ek, aldiz, kontrakoa frogatu zuten Portugaleko populazioarekin. Parte hartzaileen %53,33-ak interbentzio ostean kognizioan hobekuntzak izan arren, MOCA-n ez zen emaitza esanguratsurik aurkitu ($p=0,419$) (28).

Beste alde batetik, soilik González C, et al.-en Madrilgo ikerketan erabili zuten MEC testa, zeinetan, hobekuntza izan zuten lengoaia azpiatalean (4) (2. TAULA).

MMSE testarekin jarraituz, 2 artikuluk bat egin zuten bitartean, beste batean ez zuten emaitza esanguratsurik aurkitu. Esaterako, Han E, et al.-en Hego Koreako ikerketan eta Xu Y, et al.-en Txinako metaanalisian estimulazio kognitiboko interbentzioak gaitasun kognitibo globalean hobekuntzak ematen dituela frogatu zuten MMSE-n ($p < 0,0002$) (27). Aldiz, EEBB-ko Eckroth-Bucher M, Siberski J.-ren ikerketan ez zen MMSE-n emaitza esanguratsurik aurkitu ($p = 0,276$) (29) (2. TAULA).

Badira Xu Y, et al.-en metaanalisian TMT-Aren bidez interbentzioak arretan duen eragina neurtu duten hiru ikerketa. Baina, ez da batean ere eraginkorra izan ($p = 0,4$) (27).

Ildo horretatik jarraituz, Djabelkhir L, et al.-en Frantziako ikerketan estimulazio kognitiboko programak TMT-Bn erroreen murriztapenean eragin zuela frogatu zuten. Hau horrela da, interbentzioak estimulu jakin bati arreta jartzea eragiten duelako, eta banakoak, inguruan dituen distraitzeko faktoreak inhibitzea eragiten du. Baina, egia da, artikuluan ez dutela beharrezkoa den lagin tamainaren kalkulua adierazi, horregatik, maitzen fidagarritasuna zalantzan jartzea eragin dezake (30).

Beste alde batetik, Simon S, et al.-ek Brasilen aurrera eramandako ikerketan MMQ memoriaren galdetegia pasatu zuten. Bertan, soilik interbentzio taldeak adierazi zituen memoriari buruzko hobekuntzak interbentzioaren ostean. Ez zen horrela gertatu Hopkins Verbal Learning Test Revised (HVLTR) memorian eta Short Cognitive Testeko arreta puntuazioan (SKT) (31) (2. TAULA).

Memoriarekin jarraituz, Jean L, et al.-k Kanadan burututako errebisio sistematikoa dago. Ikertzaileen esanetan, interbentzio ostean ikerketen %44-ak memoriari buruzko neurketa objektiboan hobekuntzak izan zituztela adierazi zuten ($p = 0,049$), eta memoriaren oroimen atzeratuan eta antsietatean $p < 0,001$ lortu zuten. Gainera, parte hartzaileen %49-ak memoriaren hobekuntzak izan zituztela adierazi zuten interbentzioaren ostean (32).

Era berean, Eckroth-Bucher M, Siberski J.-k diotenez, ikerketan estimulazio kognitiboko programa dementia puntuazioan, epe motzeko eta luzeko memorian eta entzumen bidezko informazioaren oroimenean eraginkorra izan zela ikusi zuten EEBB-tan, emaitza hauek 8 asteko iraunkortasuna izanik (29).

Egoera kognitiboarekin amaitzeko, Han E, et al.-en emaitzetan CDR-SOB puntuazioetan hobekuntzak izan zituzten. Eskala honen bitartez narriadura kognitiboaren larritasun maila hobea zehazten da CDR testarekin alderatuz. Interbentzioak eskala honen

puntuazioan hobekuntzak adierazteak, Hego Koreako banakoen egoera kognitiboan hobekuntzak eman zituela esan nahi du (26) (2. TAULA).

Beraz, emaitza positiboak lortu dira orokorrean. Bai egoera kognitibo globalean, baita honen azpiataletan (memoria, arreta, lengoaia...) interbentzioak hobekuntzak ekartzen dituela frogatu dute.

2. TAULA. ARTIKULUAK, ESKALAK ETA p BALIOAK

ARTIKULUEN IZENAK	ERABILITAKO ESKALAK	EMAITZA ESANGURATSUAK eta p BALIOAK
		Artikulu guztien konfiantza tarte %95 da. Beraz $p=0,05$ eta txikiagoak diren balioak emaitza esanguratsuak dira.
Efectividad de un programa de estimulación cognitiva en pacientes con deterioro cognitivo leve de la comunidad (4).	MEC MoCA	MEC: lengoian $p=0,0011$ MoCA: <ul style="list-style-type: none"> - Aurrez grabatutako oroimena $p=0,0000$ - Arreta $p=0,0001$ - Area bisuoespazial exekutiboa $p=0,008$ - Lengoaia $p=0,0092$ - Izendapena $p=0,0388$
Cognitive Intervention with Musical Stimuli Using Digital Devices on Mild Cognitive Impairment: A Pilot Study (26).	MOCA-K eta CDR-SB (Clinical Dementia Rating-Sum of Box) eta MMSE. CDR-SB testa Alzheimer motako demenzia eta Narriadura Kognitibo Arinaren larritasuna zehatzago aztertzeke ahalbidetzen duen testa da.	MoCA-K orokorrean $p=0,046$ <ul style="list-style-type: none"> - Funtzio exekutibo eta bisuoespazialean $p=0,00$ - Esaldien eraketan $p=0,02$ - Memoria atzeratuan $p=0,00$ - Orientazioan $p=0,01$ CDR-SB: $p=0,05$ MMSE $p=0,002$
Cognitive and Brain Activity Changes After Mnemonic Strategy Training in Amnesic Mild Cognitive Impairment: Evidence From a Randomized Controlled Trial (31).	Hopkins Verbal Learning Test-revised (HVLT-R). Memoria eta hitzen bidezko ikasketa ebaluatzen duen testa da. SKT (Short Cognitive Test). Memoria eta arretaren endekapena aztertzen duen test motza da. 9 azpiatal ditu eta bakoitza burutzeko gehienez 60 segundo ditu banakoak. Test hau narriadura kognitiboaren larritasuna zehazteke erabiltzen da. Memoriaren galdetegi multifaktoriala (MMQ)	HVLT-R Berehalako memorian: <ul style="list-style-type: none"> - Interbentzio ostean $p=0,66$, - Hilabetera $p=0,63$ - 3 hilabetetara $p=0,91$ SKT: Interbentzio ostean $p=0,63$ MMQ: <ul style="list-style-type: none"> - Interbentzio ostean $p=0,01$ - Hilabetera $p=0,42$ - 3 hilabetera $p=0,33$
Computerized cognitive stimulation and engagement programs in older adults with mild cognitive impairment: Comparing feasibility, acceptability, and cognitive and psychosocial effects (30).	TMT-Bn (Trail Making Test-B)	TMT-Bn: errorearen murriztapenean $p=0,03$

The modulation effect of non-invasive brain stimulation on cognitive function in patients with mild cognitive impairment: A systematic review and meta-analysis of randomized controlled trials (27).	PD-CRS (Parkinson Disease Cognitive Rating Scale) balorazio honekin parkinson gaixotasuneko asaldura kognitiboak identifikatzeko egin zen.	<ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun kognitibo globala p=0,042 - Arreta p=0,4 - Hitz jariotasuna p=0,03 - Albo ondorioak p=0,08
Preserving cognition through an integrated cognitive stimulation and training program (29).	MMSE eta DRS (Dementia Rating Scale)	<p>MMSE: 0,276</p> <p>DRS</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dementia puntuazioan p=0,001 - Epe motzeko eta luzeko memorian p=0,002 - Entzumen bidezko informazioaren oroimen atzeratuan (p=0,007)

2

2. BIZI KALITATEA

Artikulu guztien artean hiruk hitz egin dute bizi kalitateari buruz. Arlo hau baloratzeko neurketa ezberdinak eraman zuten aurrera. Tresnekin neurtu zuten bi artikulek bizi kalitatean eraginik ez zuela ikusi zuten, eta, neurketa subjektiboaren bitartez, aldiz, interbentzioak bizi kalitatean hobekuntzak ekartzen zituela frogatu zuten. Beraz, ez dago argi ea bizi kalitatean eragina duen ala ez.

Esaterako, Jean L, et al.-ren Kanadako errebisioan bizi kalitatearen neurketa subjektiboan %49-ak hobekuntzak adierazi zuten interbentzioaren ostean (32).

Bestalde, Han E, et al.-ek eta , Djabelkhir L, et al.-ek ez zuten emaitza esanguratsurik aurkitu. Lehenak, Quality of Life-Alzheimer Disease-ean (QOL-AD) bidez neurtu zituzten emaitzak Koreako banakoen artean p=0,875 (26). Eskala hau Alzheimer dementzia duten banakoak eta zaintzaileak burutzen duten 13 itemeko bizi kalitatearen ebaluazio galdetegia da. Gaur egun, narriadura kognitiboak dituztenek ere burutzen dute. Era berean, Djabelkhir L, et al.-ek Quality of Life Scale for Older French People-ren (EQVPA) bidez neurtu zituzten emaitzak Frantziako banakoen artean p=0,87. Eskala hau 65 urtetik gorakoen bizi kalitatea neurtzeko 14 item bidezko balorazio testa da (30).

² Iturria: Egileak egina

3. ARLO PSIKOLOGIKOA

Atal honetan hiru ikerketek (ausazko ikerketa epidemiologikoak, sasiesperimental batek eta errebisio sistematiko batek) bat egin dute egoera psikologikoetan positiboki eragiten duela ikustean.

